

Ederraren erroetan...

Luis Maria MUJICA

A. Bihotzaren susmoak...

Gogoan zaitut...

Gogoan zaitut
osoro murgildurik,
eremu zabal zaitut,
bihotz honek
zure ederraren biluts...

...

Eguzkia baizinan
zaude begiota n gazte,
beraletan
sostatuko al zara
luzaroan,

Zinez, areago maite zaitut,
areago zaitut hurbil
ederraren nahi dut
azken arteraino
izan jabe...

Niregan murgil...

Bamean zaitut,
Nigan murgilduta zaude
gaua aintziran bezala,
hainbat bide egin ondoren,
zorionez, hurbilago zaitut.

Eguzkia zure begietan
osoro da festa,
zure betartearen bilgunean
ederrak bilgunea,
 zure soin isuria
 itsaso da,
ortze bilutsa, ozeanoaren
luze-zabala...

Niregan zaude aspalditik,
xarma horren kariaz
nauzu hordituta;
 itsaso horren uretan
 nahi nuke
 oraindik harago murgil...

Zuregan...

Nahiz gertatu garratza
nahi zenuke zabal
maitasunezko eskaintza
niretik gozo edan,
 baina, agian, ona ez dan
 isileko zalantzak
 (samin gaiztezko ametsak)
sor dezake eza nigan...

Zerade...

Zerade txit lerdin,
zerade lots eder, -ortzeko
ertz urdin-, zara
ametsezko lits
 (hainbeste ez balitz!),
 zerade maitemin,
enebarne samin...

Zure adatsetan...

Zure adatsetan
hilargia bilutsik,
zure soin-itsasoan
begiok
maite-horditurik.
 Zagoz eta nago
 ederraren landan
 ametsak bilbatzen,
nago eta zagoz
 matazak askatzen,
 nahiz ni ez izain
dolu horren ohar...

Loreak zertarako

Lore ederrak zertarako
ez badira bihotzean
ederrean, alajainan,
maitasuna azaltzeko...?

-Nauzu itxaron eta itxaron...
Hurbila zaizu gaitza
-urruna, berriz, guztiz on-,
nirekin zer zabiltza?

Aitorkizunak

Goizero negar ta kexu
niregandik zoaz izu, barneko
kezken gezur-aitzakiz
bihotz isila samintsu.

Haize bezala nigana zatoz,
noiz samur eta nozi zorotz
(ze espero nuen, aih, zutaz?),
hobe ixtea nire bihotz.

Triste ta garratz bizitza, gaitz
maitearen ahotsa
(nola oraindik bildu zugana?),
bihotza minetan datza.

Aintzinara, bada, heldu
nahi nuke -bertan hartu
atseden- enemaitea hatziz,
besteren ez izan beldur...

Koplaren etorna...

Kopla luze eta guri
doakida barnetik,
kopla laztana
erortzen eme, zuri,
bertsotan dana....

Zure bi begi beltzak
sentimen gazi-gezaz
(berak badaki
zer duen gaur bihotzak),
zeren naizen min...

Arantzak eta penak...

Arantzak eta penak
-net sakon ditudanak
zurijokuzko
txantxa, akaso,
samin niretzat...

Zer duzu, amodio,
bihotzak beste zio zu
behatzean,
zu oroitzean,
zergatik zuk adio...

B. Berrero, kantu jaiak

Itsasoaren aitzinean

Itsaso-hegiaren
bi hegaletan sentitzen
nik beraren
mina ta asperen.

Biok orain ondoan
gauzak oroitzen ezeren
hotsik ez den
unea gudan.

Gauak aitortu digu
maite garela,
gudan hotzik ez dela,
gagozela itsu...

Kitarraren kexuak...

Kitarrak eme disuri
arratsaren negarra,
bihotzak eme dardara
bizitzaren poz urriz.

Kitarrak leun bere kopla,
gauerdian hautsia,
-“zutaz nago ni etsia,
baina zuk ez axola...”.

Barneko amodioaz
nintzaizu geldi mintzo
-kexu garratza dut jaso-,
esan, gaur norantz zoaz.?

Kitar hitsaren negarra
orain setatiago
(barnean zuk samin asko),
noiz aldatuko zara?

Kopla luze eta zuri...

Kopla luze eta zuri
dohakida barrendik,
kopla laztana
irteten niri guri,
bilutsik dana...

Mertsika lorea

Udaberriz, ene mertxika lore,
ikusten zaitut eme, zoragarri
-orri apain ta arrosa kolorez-,
ederragorik nik ezin igarri.

Zure odoletan goiak du ore,
natura gazteak emaitz ugari
(loreen duela margozko ondare),
begi biontzat goreneko sari.

Ederra zarela ontsa dakizu,
zuga ikusia ez dezakett ezets,
jantzia zaude zu ederrezko izuz.

Gogokoa zaitut, ez esan ezetz,
zu behatuaz nik zentzuetan su,
ederra duda gozoki ardiets.

Zabiltza..

Zabiltza eta nabil
(al dakizu nor naizen?),
"zaude" duzu ihardespen
eta nik barne-samin...

Zu bazoaz...

Zu bazoaz, ni banator,
biok bat-bera izan gara (zu
nora joan ni hara), baina
orain zatzait idor. . .

Nigandik joan...

Bart isilik joan zinan,
eme eta isilean joan,
gau handia dut haraindik
(ezkutuan zer zenduan?),
ez dut tristezia baizik
ze bart isil joan zinan,
aih, aih, aih, isilean joan...

Zein lirain

Zein zail, zein lirain, zein eder
belarritakoak zintzil
zilar-hilargi billiran
kopiatuz ortze urdin,
ah, zelako zoria dudan
begi hoiek nagola azter...

Elkarrizketak nnn

Banoa (ta ez noa)
samina bamagoa
sentituz, baike,
oroi aspaldikoa, guztia
leunki...

Nahi nuke maitemin
nire hatsa zure egin,
zugan net sartu,
berriz hartu atsegin
zu begiratzuz.

Zurea gerta nadin,
zure bameko egin
so hori bilduz,
nire bameko samin
hau bego biluts...

Ekarrizketa berria

Emeki didazu esan
zertxo behar dudan jasan,
zein dolu sentitu...
-Ah, barruan zein min dudan,
arren, ez galdetu...

Eta berriro galdera:
-"hain triste nolatan zera,
zerk dizu halako kalte
(ez zara zinaden bera),
didazu itxi ate..."

Ibai bat doakizu...

Ibaia doakizu
bihotzetik galai, bihotz
hori, aih, aih, aih, nire
hitzaren zaino

Musuzapia busti
duzu negar-susmoz
(barnean zergatik hotz?),
bakarrik nauzu utzi.

Nigarra txarolezko,
-“maite izan zintudan
-nahiz zuk ez uste izan-,
zare eskertzarreko!”.

-“Arren, itxi zauria
ez zakidan krudel,
itzuli egun gau beltz,
isuri argia... ..

Biok bat

Ehun, berrehun bider maite zaitut,
arima eta soinaren mintzoaz
asti-astiro zaituda ezagun,
zara bihotz honen xede zintzoa.

Bai egunez, bai gau-sabelean,
amets bero baten zaitut goi-gallur
nahiz bihotza utzi kezka gaitzetan,
kezka gaizto baten besotan biluts.

Dasaizut doluz, barne atsekabez
ez nazazula, arren, utzi baka,r zure
onura dekadala ardiets.

Bai, soin hon bedi nire ata!
zure beso, bular, bizkarrezur, ertz
guztiak niregan egin bitez bat...

Berriro nagozu umil...

Berriro nagozu umil
gauzetaz kantari,
(nagozu gozo, ezti
hitzak esatari),
 bai honi ta bai hari
 beha nago adi,
 urrun dena ta hurbil
beti zait lagun mino...

Bertsolari...

Bertsolari, bertsolari,
jalgi beste bertso bi,
 zure etorriak lokarri
 zortzikoaren hari.

Bertso hitsak puntu zortzi,
irudiak hamabi,
 hitzak hitz errepikari
 ahotsak xarma handi.

Bertsolariak hitza atzi
doinu umilaren graziz,
ahotsaren goi-prestantzi
bihotzari erantsi...

Zara...

Zara eguna bera
-urre eta zilar-,
zara arrats ederbera,
dirdirazko ibar.

Zara marmore, ederlan,
harribitxi, metal, marfilezko
hortz bikain,
kristaldegi jabal.

Nik hatzemana gozo,
zait liluragarri
-argiz betea oso-,
agatazko harri.

Ederraz jabetzean
sentitzen naiz ibal,
hegaz amets artean
nabilazu alai...

Esan, nola joan zan...

Esan, nola joan zan
iparrerantz ihes
utzirik ni negarrez
(zelako mina dudan...),
utzi nindun baldan,
etsia poz gabez
-bihotzak pena baino ez-,
mina behar jasan.

Zurea

Baiki, zurea naiz oso,
zurea eme ta gozo,
niregan zaude
nahiz zu beste bati so,
ah, ze gozamen...!

Emakume bati

Gonapean zure izterrak urduri,
arrainak gisa dabiltz eskuin-ezker,
izterren dardara bizkor, limuri
jantzirik ia ez duzula ezer.

Fandangoaren musika-iturriz
neskaren dantzak erritmo gozo-ozen
mozkordura baldan, sentzual, izur
batez bihotza ez da grina baizen.

Neskatxa bilutsak dardaizo hitsa,
izter zuriak dantza arin-zoroan, venus
gazteak malizia, irritsa.

Ezpainetatik irribar gozoa
doakizu izuz ardoa ballitzan, zure
edarira prest nire ahoa... .

Haio ederra...

Hain eder, hain baldan zara,
ile beltzak isurita

bizkar bilutsean barna

ibai mantsoa bezala

-zerade itsaso guria,

begirada erantzia-,

zara ardo beltz eskainia,

zerade ortze zabala...

Airea, arreo, esazu...

Airea, arren, esazu zer

da zure usain-zantzu,

daukazu soin guztia

baizinan hitz zuria

usainezko hats izuz,

zerade su isuria...

Nora joan zara...

Nora joan zara

nongo aldetara,

aireak dasait

hurbil zarela,

aireak, aih, aih,

urrun zaudela,

nora Joan zara,

nongo aldetara...

Huilako hegaztia (I)

*Aih, aih, aih, begi
beltz horien jail*

Ibaian nola lo den goiko ortzea
(lolean nola biltzen den usaina),
halantxe gorderik nik, alajaina,
zure soinaren edari askea.

Heltzen, usmatzen, biltzen den lorea
zara, zentzuon hasete bikaina
-zeru urdineko hilargi sorgina-, mozkortzen
nauzu zure likoreaz...

Bai, bazter gabeko ortzea zara,
jantzirik gabeko landa galaia ozeano
biluts baten erara.

Noizko duzu, esan, maitasun-deia
barnean umil duzun bihotz-ikara,
aspaldidaniko maite-erregaia...

*Aih, aih, aih, begi
beltz horien jail*

Huilako hegaztia (II)

*Aih, aih, aih,
bular bi horien garai!*

Gaizpera nuen barne hutsunea
zuk bete didazu nolan usoa amodio
berri baten gozoa,
hasete horren pila du barneak.

Agata zara, Leyda, beira, urrea,
Kolonbiatik helduriko usoa
Heldu nauela zure maite-soak,
mozkortzen nau sendo begi zureak.

Ez al nekien? Aspaldi espero
ninduen sugarrez zure bihotzak,
xoratu zinaden zu ikusiz gero.

Ez dut merezi halako eskaintza
ozeano atzait, itsaso, urtegi,
nire jabe da oso zure hatsa...

*Aih, aih, aih,
bular bi horien garail*

Huilako egazia (III)

*Aih, aih, aih, ezpain
hioen gozagail*

Murgiltzen naiz zure soin itsasoan
sotila, aratza, sensuala zara
-sagar gizenaren mami erara-,
mertsikazkoa soin horren gozoa...

Zure horbalda. lepo, esku, hatzak
galburu-meta baten antzekoak
-dena uhinetan zara emanikoa-,
aik, mozkor baten besoetan natza.

Oro murgiltzen naiz sorbalda, beso,
Pzter, bular hioen oihan naroan
atsegin hartzen duda zure eraso...

Bai, plazer horren hasetara noan
kanpoko gauzei egin gabe kaso,
ezkuta nadin osoro zurean.

*Aih, aih, aih, ezpain
hioen gozagail*

Zara nire maitea...

Zara nire maitea,
nire bestea,
nik dut zure moldea,
zure orea,
biok laku berean
ízal gaitean...

Naukazu, maitea, en...

Naukazu, maitea, en
nahiz ohar ez zaren,
beti nagozu aldamen
zure begia igerriz,
maitasun hau gehiegi
da zuretzat, hobenen,
aih, maitasun horren ezten
sarkorrek minez nau utzi...